

**Mendi jardunaldiak Zeberion zemendiaren 5, 7 eta 9an**

11. orrialdea

**Borja Estankonaren frutu barria**

Borja Estankonaren taldeak *Fruitua* izeneko disko barria aurkeztuko dau Igorreko Kultur Etxean emongo dauan kontzertuan zemendiaren 10ean gaueko 21:30ean. Borja Estankonagaz batera Jimmy Arrabit izango da baterian eta Itsaso Etxebeste bajuan. Borjaren anaia Igor Estankona poetak bere lan batzuk errezitauko dauz emonaldiko tarte batzuetan. **12. orrialdea**



**Houlding eta Txikon zemendiaren 8 eta 9an Mendi Amesgarrietan**

11. orrialdea

TOKIKOM

# begitu **10** urte

arratia ubide zeberio

# 173

2012ko zemendiaren 1a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Folkean 12 Diman hilaren 9, 10 eta 11n

Folk musikako jaialdi bat antolatu dau Dimako Jai Batzordeak lehenengo aldiz Arratian. Folk jaialdi desbardina, diru gitxigaz eginda.

Izan be, folk jaialdi gehienetan protagonismoa musika eta jantza taldeak hartzean dabe, baina hemen protagonismoa Arratiako jentek hartzea gura dabe antolatzaileak eta euren musika tresnak joteko aukerea izango dau gura dauanak. Igorreko musika tresna egileen jardunakdiak be aprobetxau dabez tailerrak antolatuteko. Erromeria bat be egongo da, XX. mendearen hasikerako modukoa, eta bertan ez dira faltauko Guardia Zibilak eta abadea. Jenteari orduko erropak janzteko eskatzen deusie antolatzaileak eta jantzirik dotoreenarentzat

saria egongo da.

Urruneko musikea be entzun ahal izango da jaialdian. Hori bai, Euskal Herriko taldeak jota. Holan, Donostiako Iban Nikolaik Australiako doinuak ekarriko ditu eta Dead Bronco Mungiako taldeak Estatu Batuetako country musikea.

Dimako Udalak materialakaz lagundu dau eta Dimako Gaztetxeak eta BEGITUK babestu egin dabe proiektu hau. BEGITU, urteurrena ospatzeko egiten dabilen ekintzen artean dago Dimako jaialdia. **7. orrialdea**



Dimako folk jaialdia.

### ZEANURI

#### Jon Etxebarriak irabazi dau Gernikako gaztai txapelketea

Gernikako urri bigarreneko azken astelehenerako azokako gaztai lehiaketean Jon Etxebarria eta Pui Arrieta Ipiñaburuko (Zeanuri) gaztaginak irabazi eben. Etxebarriak udabarrian egindako gaztai ketua aurkeztu eban Gernikan, Ordizian egin eban legez. Murueta herriko Kamiñoko jatetxeak 5.700 euro pagau ebazan gaztai irabazlea erosteko enkantean, igaz baino gitxiago. Diru hau bertako Calzada zaharretxerako emongo dau Gernikako Udalak.


Jon Etxebarria eta Pui Arrietaren gaztaiak saririk handienak dabiz irabazten aurtan eta hori salmentetan be igartzen dala esan eben presnan. Izan be, aurtan Ordiziako irabazleak izan diranez Gernikara eroandako gaztai guztiak hamabietako salduta eukiezan.

### ARRATIA

#### Hauteskundeen emoitzak gurean

Legebiltzarrerako hauteskundeetan "hiru legebiltzarkidetik bi abertzaleak" badira EH Bilduko Laura Mintegiren esanetan, Arratia, Ubide eta Zeberion, EAJ-PNVk eta EH Bilduk jasotako botoak batu ezker, emondako botoaren % 90 ingurura heltzean da.

Josune Gorospek legebiltzarrean jarraituko dau. EAJ-PNVren zerrendan 11. joian eta 11 jarleku lortu dauz partidu honek Bizkaian. **8. eta 9. orrialdeak**



### LEMOA

#### Cementos burrukan

Cementos Lemonako beharginak kanpaldia egin dabe kaminoaren ondoan eta lan-ixteak martitzen, eguen eta zapatuetan, EEE negoziatzino prozesua legala ez dala izan salatuteko eta euren lanpostuen defentsan. Izan be, Madrilen Portland Valderriasek Lemoan 34 kale-ratze sinatu eban urri bigarrenaren 22an. ELA eta LABek inpugnau egin dabe hori. **5. orrialdea**



## KANTU HERRIKOIAK

JANTZARA  
MUTILAK

(Baltseoa)

Jantzara mutilak  
itxi baltseo zikina!  
Aurrera neskatxak  
ohitura garbiakaz!

Aupa mutilak!  
Gora neskatxak!  
Zuen ohiture onakaz.  
Zapaldu beti  
jantza nahastua  
zorakeri guztiakaz.

1987an, Zeanurin, Udako Euskal Unibertsitateko musika taldeak jasoa.

Jantzara mutilak

(baltseoa)

Jun - tra - ra mu - ti - lak i - txi bal - tse -  
o zi - ki - na! Au - rre - ra nes - ka - txak  
ohi - tu - ra gar - bi - a - kaz! Au - pa mu -  
ti - lak! Go - ra nes - ka - txak! zu - en ohi - tu - re  
o - na - kaz. Za - pal - du be - ti jant - za nahas -  
tu - a zo - ra - ke - ri guz - ti - a - kaz.

## TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
S.O.S. DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**09:00etatik 22:00etara**  
**Urri bigarrenaren 29tik**  
**zemendiaren 4ra**

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54

**22:00etatik 09:00etara**

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.  
**Zemendiaren 5etik 11ra**  
Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22

**22:00etatik 09:00etara**

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano  
**Zemendiaren 12tik 18ra**  
Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09

**22:00etatik 09:00etara**

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan****22:00etatik 09:00etara**

Carazo. Karmelo Torre kalea 12. Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea**

94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Trenak**

Euskotren 902 543 210

**Bizkaibus\* 902 222 265**

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua  
22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era  
orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara  
30 minuturo, azkenengoa 22:15ean  
Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30  
minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean  
Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era  
30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:  
06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik  
behin.

**Otxandiotik urteerak:**

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era  
orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,  
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.  
Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik  
21:15era orduro.  
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.  
Zapatu eta jaiegunetan ez dago  
zerbitzurik.

**Artea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta  
20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Artea**

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.  
Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

**Zeberio-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15  
eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,  
14:15, 17:15 eta 20:15.

**Bilbo-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15  
eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40,  
16:40 eta 19:40ean.

**La Union\* 94 427 11 11****Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan  
dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta  
16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau  
eta Otxandiokoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta  
16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta  
Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan  
dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan  
dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Kudeatzailea:** Iñigo Iruarrizaga.

**Erredakzino taldea:** Urtzi Barrenetxea, Ainhoa Duñabeitia, Clara Luja Azpiri,  
Cristina Ruiz, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

**Maketazinoa:** Iñigo Iruarrizaga.

**Publizidadea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante  
eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde  
Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaia Ozerinjaregi eta Iraitz  
Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

**Tiradea:** 6.600 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.600 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

**Babesleak:**

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Saila  
Departamento de Cultura

bbk



## ZEURE BERBEA

### Areatzako Euskal Jaiaren zergaitia

Badira 5 urte Euskal Jaia antolatzen hasi ginala. Orduan ezari genduzan erronkak eta asmoak ahal zan moduan baina beti gogotsu betetzen saiatu gara. Jaia antolatzerakoan, abiapuntu bikotxa zehaztu genduan lanean hasteko. Batetik, aspektu didaktikoa; hau da, gure herria izan diran, ofizioak, ohiturak, historia eta istorioak... errekuperatea eta ezagutzera emotea. Eta bestetik, jaia bera prestatzeko orduan, hasikera-hasikeratik billaroztarron parte hartzea topau eta suspertzea; azken baten, "sukalde lana" deritzen prozesu horretan billaroztarrak inpliketea, ideak botatea, ekintzak garatzea eta ardurak banatzea.

Hau holan, urtero lez eta garaiz, dei zabala egin da Euskal Jaia antolatzeko batzarretara hurreratu eta parte hartzeako. Eta bertan proposatutakoaren arabera jaiaren egitaraua osotuten joan gara. Lehenengo urtean txarribodea izan zan gai nagusia, 2. urtean gaztainak eta sagarrak, 3. urtean euskal erropak eta linoa egiteko prozesua, 4. urtean euskal mitologia, akelarreak, eta sendabedarrak... Aurten bariz, kirolak, antxinako jokoak eta jantzak.

Eta aukeratutako gai nagusiaren programea osotuteko, azoka tradizionala be antolatuten da. Asmoa gure herriko eta Aratiako artisau eta produktoreen presentzia indartzea izan da eta artisautza postuak, saltokiak baino, artisautza tailerrak izan daitezaz

saiatu gara. Urtero parte hartzean dabe Areatzako Gerardo Lapatza, Aitor Egileor, Sonia Ingunza, Asier Urien, Natalia Vívar, M<sup>a</sup> Carmen Pacheco, Pili Aranburu, Saioa Larrea, Areatzako Binuea eta abar. Aitamen berezia be ehundaka talo egiten dabean andrai, berakatz zopa taldeari, herri bazkaria antolatzen dabena, Areatzako txistulari, jantza talde eta esku pelota alkartari, Zeanuriko Joko Alai alkartari, Laminetxeko gazteai, udaleko langileai...

Lan honeri guztiari esker, erdi galduta egoan hainbat etnografia elementu batu eta urtez urte aberatsago bihurtzen dan altxortxo kulturala berreskuratu eta osatu dogu. Bildutako materiala eskura daukagu orain, beste hainbat ekimen garatu ahal izateko.

Euskal jaiaren muina, antolaketan inpliketan diran billaroztar guztiengan dago eta hau holan ez balitz jai honen zentzua galduko litzateke. Heritar askok mosutuk lan piloa egiten dabe jaiaren egunean eta baloretako da; baina parte hartze ekimena, idea sortu eta garatuten dan prozesu osoan zehar suspertu gura dogula gogorarazo gura dot.

Azkenik eskerrak emon Arratia nesken futbol taldeari. Eurei egindako omenalditxoan hunkituta agertu ziran, izan be euren berbetan: "11 urte daroaguz jokatuten eta hau izan da egin deuskuen lehenengo errekonozimientua". Ba, jakin egizue talde bezala lanean eredugariak zariela arratiarontzat. Zorte on Euskal Ligan eta aurrera neskak!


SARA GUTIERREZ  
EUSKAL JAIA BATZORDEKOA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Abaro



Animalientzako leku babestua da, bertan lo egiteko modukoa: udan kerizpea, neguan aterpea. Arbolen orri moltsoaren azpian sortzean dan kerizpea aproposa izaten da, esaterako eguerdiko eguzkiagaz ardiak edo behiak abarotan ipinteko hausmer egin dagien. Batuaz, itzalpe esaten jako. Abaroa ikuspegi ederreko tontor edo gailur bat be izan ahal da.

## ERETXIA

### Topikoak

Orain denpora gitxi etxeko igongailuan sartu eta igarri neban atarira nonor etorrela. Lehenengo pentsamentua botoia ahalik eta arinen sakatzea izan zan; auzoko batzuek azgotea baino, gurago dodalako oinez joatea bosgarrenearaino. Gainera, beti ezin gara, bada, jatorrak eta sinpatikoak izan, ezta? Halan bere, azken momentuan damutu-edo egin jatan, eta igongailuko atea zabaldu neutsan.

Andra bat eta ume bat sartu ziran eta lehenengo pisura egin eben. Orduan galdetu neutsan andreari ea bizilagun barriak ziran, banekialako pisu bat errentan egoala. Baietz esan eustan eta nik komentau bosgarrenean bizi nintzala.

Holan amaitu zan "biajea". Pozik nik ondo etorria emon neutselako, nahiz eta oso ondo jakin ez zelan egin. Emakumea hegoamerikarra zan, eta hortik etorren nere poztasuna: gu baino adeitsuagoak diralako, sarritan euskaldunok "lar euskaldun" jokatzen dogulako, takarrak izan geinkelako kanpokoen begietan. Sarritan, eurentzako astokilo samarrak baina nobleak, *bon sauvage*-ak bagina legeztxe; basajaun eta basandere koadrilla bihotz onekoak, baina hezi bakoak. Barruan daroagun friztia horrek onak izaten lagunduko ez baleusku moduan.

Igongailuan, bakarrik geratu nintzanean halaxe sentidu nintzan, eta neure artean pentsau neban telesail amerikanoetan jakingo ebela auzo barriari zelan egin ondo etorria, edo hain urrin joan barik, gure amamak-eta eukiko ebela formularen bat protokoloa beteteko.

Baina benetan gara halakotxeak, ala hori da gutaz daukien irudia? Sarritan, gure karakter latzak imajina hori emongo dau. Kanpotarren begietan islatzen dana gure gainean daukiezan



LEIRE NARBAIZA  
Kazetaria

aurreretxiak baino ez dirala esango neuke.

Benetakoagoa ete da "Vaya semanita" saioan agertzen dana? Burugogorak, fanfarroiak, uzkurak eta berba gitxikoak gara dinauskue, eta hori gitxi balitz, narrutan be urri egiten dogula, aukeran.

Ez dot esango tipiko-topiko horreek egia ez diranik, ligau larregi ez dalako egiten, baina momentuz jentea alkarregaz bizi, batzuk ezkondu eta umeak bere jaiotzen dira... batzuek, behintzat, minimoa egingo dabe, dinot nik. Ume honek guztionek ez dira-eta probetetan egin, ezta?

Horregaitik, nere eretxian, ez gara euskaldunok gure gainean daukaguzan usteen modukoak. Bertako erdaldunak holan ikusten gaituela esango neuke, beharbada, gure mundua benetan ezagututen ez dabelako, euskerarik ez dakielako. Horrek kontu guztiak lanbrotuten ditu.

Besteenak albo batera itxita, zelan ikusten dogu euskaldunok geure burua? Esango neuke aspaldiko euskadunari ez jakozala hiru akats parkatuten: alperria, barritsua edo zikoitza izatea. Zikoitzarena kenduta, besteez ez dakit zer pentsau! Irudi nahiko zintzo eta kalbinista dogula uste dot, gurearen moduko herri katoliko-ohi barria izateko. Behargin fintzat dogu geure burua, alperkeria pekatu handia da gizarte produtibo honetan, eta barritsukeriak markau egiten gaitu (esperientziak dinotsuet), Euskal Herrian barriketalari handiak egon izan ez balira moduan...

Mundua aldatu egin da ikaragarri, baia uste sakon horrek geure barruan ondo sustraituta dagozala begitanduten jata. Mundua eta gu aldatu bagara be, gutaz dogun imajinak lehenengo ikutua daukala esango neuke; hau da, barruko tradizionalista oraindino hortxe daroagula.

**BATZ**  
BATZ, S. KOOP.  
Tornea Iuzua, 32  
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharrean beharrez,  
euskeraz eginez

Euskeraz  
Batzen gaitu

**MONDRAGON**



## LUMATUTEN

GONTZAL  
MENDIBIL

## Geure estiloa

**G**eure psikologiaren oinarria aztertu guran, Oteizaren "gure estiloa" aitatu gura neunke. Ez nabil hemen "gure" konzepto ideologikoaz, ez, ahaztu daigun "gu eta besteon" matraila hori gaurkoz.

Gaur, globalizazio honetan geure senera, geure jatorria itzultzea derrigorrezkoa dogu. Iruntzi ez gaiezan ez da nahiko euskera jalgi hadi plazara! zantzo eta egite hori, "euskalduntasuna jalgi hadi plazara beharko geunke eszenifikatu", inoan Oteizak, eta euskereak egiten bagaitu be euskaldun, euskalduntasuna ideologiatik kanpo dago, hori geure barne psikologia dogu. Izate eta egite bat dauka.

Zenbat bider entzun ete doguz... "Euskaldunon berbea" edota "Berbakoa da gizon

hori". Baina gaur erdal mentalidadez jantzita gagozan honetan, erdal mentalidadetik ekarri doguz edo handixek sartu jakuz geureak ez ziran portaera askotxo.

Ekonomian, zein politikan, zein kulturatan... patriarkalismoaren hatzaparretatik urtetea beharrezkoa dogu. "Gure amaren sua", gure amatasuna, ez badogu nabaritzen be, ageri-agerian dogu eta berbiztea jagoku. "Ama neunkan lokarria, berak eusten ninduan, bera zan abegia".

Kanpotik jatorkun bardintasan monolitikoaren hatzaparretan jausi izan gara urteetan, eta hori gure estetikea ez bada be, "geure" bihurtu dogu. Oteizaren *La dureza inflexible de los vascos*, horrexek egin gaitu euskaldun. Horrexek egin gaitu garana, zelan bestela, hizkuntza batek, kultura batek, hainbeste triskantza igaro ostean, hainbeste ezbehar eta enbarazu ondoren, irautea.

Gutariko bakotxaren buru-bihotzetan inperioak zanpatu egin gaitu, inperioaren nabarduraz jantzi izan gara. Eta, "itxi egin da dana, demokrazia baten antzera" idatzi euskun Igor Estankona poeta arratiarrak. Beraz, izan garanetik izan geintekezaneraneko bidean belaunaldi honentzat eta ondorengoentzat, geu izanik, geure estiloan, irautea eta zabaltzea jagoku.

## ZERTZEAN



## KEPA BETZUEN

## Neuronak eta topikoak

**K**lin-klin!! Def Con Dos-ek aipatzen zituen "hombre maraca" horietako bat bihurtzen ari naizela luste dut. Burua batetik bestera mugitu eta hor entzuten dut; "klin-klin!!" Behin kalkuluak, *brainstorming*-ak, esperimenduak eta inkestak eginda, ondorio bat ateratu dut; lau neurona dira nire buru honetan geratzen direnak. Lau.

Zementerako langileak lantokiko sarreran, akanpatuta. Koplowitz delako bati ez omen zaio Lemoan gertatzen dena askorik ardua. Badauzkat bertan lan egiten duten lagunak, manifan ere egon nintzen beraiekin. Bizi guztia bertako kutsaduraz kexaka eta hemen amaitzea ere! Baina beno, goazen harira. Lehen grebarik egiten ez zutenek orain egiten dutela dio batek, kalera joan daitezkeela dakitelako. Berak ez lukeela horiegatik penarik hartuko erantzun dio besteak. Etorkizuna kokolan betirakoa zirudien enpresa handi batean, baina manifan 200 pertsona asko jota. 1go topikoa?

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera erudian ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**K**amioi, kotxe eta traktoreen sasoian, oraindino burdigileren bat be topau daiteke. Arkaitz Arana zeanuriztarrak Basauriko kultur-talde baten eskaerari erantzunez, egurrezko burdia egin dau. Horretarako bertan behera itxita egoan burdi zahar baten pieza batzuk aprobetxatu ditu be, baina pieza gehienak berak egin behar izan ditu. Zeanuriztar burdigileak dinoanez, pieza barriak egiteaz eta zaharrak barrizatzeaz ganera, izen asko ikasi dauz, galduta edo galtzeaz dagozan hainbat berba: galgea, burtzila, larakoa, kamea... Kontuak kontu, Arkaitzek egindako burdiak bere ibilbidea bete dau Basauriko kaleetan zehar, aurtengo San Fausto jaietan.



  
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

**Gorosti**  
LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.147 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostisl.com](mailto:gorosti@gorostisl.com)

 **agoa** Ortodontzia  
hagin klinika Inplanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aiderkoa  
Odontologia

Bidebarri 1, behea  
48140 Igone-Bizkaia  
T. 94 631 30 39

Kalejola Zentzu, 110  
R.P.S. 25/06

 **JANDONIZ**  
nagusientzako etxea  
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - [www.jandoniz.com](http://www.jandoniz.com)



## DIMA

# Bilduk ohartuarazo dau Aldundiaren neurriak ez dirala baliogarri Udalaren finantza egoereari aurre egiteko

Aldundiaren planari jarraitu ezker Udalaren zor-zama handituko litzakeala dino Rafa Ugalde Dimako alkateak eta BBKren jokabidea salatu dau. Izan be, entidade honek zorra lehenbailehen amortizatea gura dau eta "horrek herritarren kontu publikoak itotzea ekarriko leuke".



Rafa Ugalde Dimako alkatea.

### Erredakzioa

Bizkaiko Foru Aldundiak finantza arazoak dituen herrirentzako onartu zituan neurriak ez dira egoereari aurre egiteko baliogarriak Dimako alkatearen ustez. Bizkaiko Foru Aldundiak 111/2012 Foru Dekretua onartu eban zorrak ordaintzeko zailtasunak dituen udal maila zabaltzeko. Dimaren kasuan, urte betean Udalaren zorra %13,6an murriztea lortu bada be, aurrekontuaren % 20a iristen da aurtengo finantza-zama eta zama hori handituko balitz, urtea negatiboan zarratuko leukela emon dau jakitera Ugaldek. Beraz, Bizkaiko Foru Aldundiari bestelako urtenbide bat proposatzeko lanean dabizala dino alkateak.

### BBK-k zorra lehenbailehen amortizetako eskatzen de-

### tso Udalari

Dimako alkateak BBKren jokabidea salatu gura dau. Aurreko legegintzaldian amortizatu beharreko zorra luzatzea ebatzi eban BBK-k eta interesak kobratzera mugatu da orain artean. Baina orain, erakundeak erispidea aldatzea ebatzi dau, eta 330.000€ko zorra lehenbailehen amortizetako exijidu deuto Udalari. Ugaldek jakinarazo dau Dimak 100.000€tik gora ordaindu deutzazala BBK-ri azken urteotan interesetan (aurten 132.000€ interesetan eta amortizazioetan), eta herriak egoera ekonomiko larria sufriduten daua jakin arren, jasangaitza dan ordainketea inposetea leporatu deuto BBKri. "BBK-k, 725.000€ko mailegua emon eutsan Udalari 2007an eta orain aurretik eukan zorra kentzeako exijiduten dau; horretarako herri-

tarren kontu publikoak ito behar baditu be" dino Ugaldek.

### EAJ-PNV egoerearen erantzule

Ugalderen ustez, aurreko EAJ-PNVren udal gobernuak, "herriaren kontuak modu ardurabakoan zorpetu eta herritarren etorkizuna hipotekatu eban. Kudeaketa negarriaren erantzule zuzenak dira".

Dimako herritarren jarrera, barriz, eskertu gura dau alkateak. Herritarren ahaleginai esker Udalaren zorra % 13,6an murriztea lortu dalako urtebeteko epean. "Horretarako zenbait gastu murriztu behar izan badira be, aurretik alboratuta egozan zenbait gizarte zerbitzu berreskuratzeko bidean dira. Auzolan ekimenai esker herriko eskolan konponketak hasiko ditue laster guraso taldeak eta udal liburutegiak ateak zabalduko ditu aurtun, hiru urtez itxita eta ahaztuta egoan ostan" dino alkateak.

## LEMOA

# Cementos Lemonako burrukeak jarraituten dau

### Erredakzioa

Kamino ondoko kanpindenda dozena batek adierazoten dau Cementos Lemonako burrukeak ez dala amaitu. EEEaren negoziatzino prozesua salatzen dabe sindikatuak legearen barruan ez dala egon esanez eta beharginak lan-ixteak egin dabez martitzen, eguen eta zapatuetan eta kanpaldia kaminoaren ondoan. Dana dala, argi izpi bat ikusten dabe beharginak. Izan be, Portland Valderivas taldeak Lemoako lantegia CRH plc Irlandako taldeari salduko ete deutzan zurrumurrua zabaldu da eta holan izatekotan, EEEtik kanpo egongo litzatekez. Hori dala eta, urri bigarrenaren 23an alkarretaratzea egin eban Cementos Lemonako beharginak Bilbon EEEa lege-iruzurra izan dala eta Lemoako lantokia salduko ete dan gaineko informazioa eskatzeko enpreari.

Akordioa, Portland Valderivasak, CCOOek UGTk eta USOk sinatu eban urri bigarrenaren 22an eta "34 kanporatze aurreikusuten dauz, jubilatuzino eta aurrejubilatuzinoak barne. Baina hori pasada bat da, beharginen % 30 inguru, eta gainera ez dago horren beharrik" dino Juan Franzisko Etxebarriak Cementos Lemonako beharginak.

Sinatutako hitzarmenean beharginen erreprezentazio eskubidea urratu egin dala dino LABek Lemoan erreprezentaziorik ez daukien sindikatuak sinatu dabelako. EEEa "Madrilen negoziatu da. Portland Valderivas enpresa guztietan UGTk eta CCOOek daukie gehien goa, gurean izan ezik. Euren artean egin eban akordia gugaz kontau

barik eta holan erreprezentazino eskubidea urratuten da" azaldu deuto BEGURI Jabi Amorrortu LABekoak. ELA eta LABen arabera, negoziatzino lantoki bakoitzean egin behar da, ez taldean. Hori holan, Lan Delegazinoan inpugnazino sartu eban eta urri bigarrenaren 30ean konbokautu dagoz Madrilko mahaian egon ez ziran sindikatuak eta enpresea.

### CRH plc

Zabaldu diran zurrumurruren arabera, CRH plc. (Celtic Resources Houlding) izango litzateke Cementos Lemoa erosten interesauta dagoan taldea. "Bersino ofizialik ez dago, baina enpresa batzuetan onartuta dago Portland Valderivasen EEEtik kanpo gogozala eta ez dala kalertzirik egongo esan eban gerenteak. Eta hemendik ibili dira, uste dogu CRH plc-koak, lantokia eta kanterak ikusten" dino Amorrortuk.

Amorrorturen esanetan, CRH plc irlandarrak Valderivas taldearen bezeroak dira. "Valderivas taldeak Estatu Batuetan inbersino handi bat egin eban eta zor ikaragarria egin dau. CRH plc enpreseagaz auzi bat euki dabe eta zor hori pagetako CRH plc-k taldeko enpresa bat eskatu deuto Valderivaseri, portugaz ondo komunikautu dagoana".

CRH plc-k 34 herrialdetan ditu lantokiak eta 76.433 behargin. Bere salmentak 2011n, 18 mila milioe eurokoak izan ziran CHR plc-ren arabera. Beste alde batetik eztabaidagarria izan da enpresa hau. Zenbait iturriren arabera, CRH plc-k arazo legalak izan ditu prezioak modu ilegalean ipintearren eta politikoi pagetearren, beste gauza batzuen artean.



Cementos Lemonan dagoan parkarta bat.

**Kendall Languages**  
- A, B eta C perfil linguistikoen lorpena Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz  
- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea  
Elxalde 4 behea · 48.140 Igorre (Bizkaia) · 94 657 73 48 · www.kendall-languages.com

## ARRATIA

**Hilaren 14rako grebara deitu dabe CCOO eta UGTk**Erredakzioa

CCOO eta UGTk aurtengo hirugarren grebara deitu dabe zementiaren 14rako. Zenbaki hau zarratukeran, ELAK eta LABek ez dabe argitu zer egingo daben oraindino. Deialdia Europako Sindikatuen Konferazinoako Ekintza eta Alkartasun Egunaren barruan dago, Europa osoan ezartzen dabizen murrizketen kontra eta politika sozialak aldarrikatzeko. Portugalen be, egun honetarako greba deialdia egin dabe hainbat sindikatuk.

Euskal Herrian murrizketen kontrako hirugarren greba izango da hau. Urteko lehenengo grebak martiaren 29koak, deialdi bateratua izan eban eta arrakastatsua izan zan; Arratia be ia guztiz geldituta egon zan. Urri lehenengoaren 26ko grebak be oihartzun zabala izan eban. Deialdia sindikatu abertzaleak eta gizarte eragileak egin eban.

**Langabezia gora Euskal Herrian**

Espainiako Estadistika Institutuaren azkenengo datuen arabera, langabeziak gora egiten jarraituten dau Bizkaian. Datu honeen arabera, Bizkaian 95.100 langabe dagoz. % 17,44.

## IGORRE

**Euskerearen erabilerearen diagnostikoa Igorreko dendetan**Erredakzioa

Diagnostikoa, Igorreko Euskera Plana, Beinke merkatarien taldeagaz batera, merkataritzan euskerearen egoera hobetuteko burututen dabilen proiektu baten parte da. Emoitzak bakotzak daukazan berezitasunak kontuan hartuta, arloka banandu dabez: txikikazko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak. Horren bidez jakin dabe badagozala euskerearen normalizazioan hobetu beharrekoak. Arreta berezia merezi dabe agozko erabilereak emon dauzan emoitzak. Izan be, eta establezimentuen % 60k euskeraz egiteko ebatzia hartuta badauka be, eta lehenengo berbea euskeraz dala kopuru berberak badino be, bezeroakaz daukien euskerazko agozko harremana % 20koa da merkataritza eta zerbitzu enpresetan, ostalaritzan, barriz, ez da %10era ailegetan. Hizkuntza ezagutzari jagokonez, ostalaritza da daturik bajuea emoten dauana, establezimentuen % 38 dira euskaldunak, merkataritzan % 50 eta zerbitzu enpresetan % 75. Azpimarratu behar da zerbitzu enpresetako emoitzen fidagarritasun maila ez dala erabatekoa; establezimentuen erdiak erantzun deusie galdetegari eta Amaia Arauzo Igorreko Euskera Teknikariaren esanetan, emoitza

horreek ez dabe zerbitzu enpresetan dagoan egoera islatzeko balio nahikorik. Ostalaritzan, % 72k erantzun deutso galdetegari eta merkataritzan % 81ek.

Langileak kontratatzerako orduan euskera jakitea beharrezkoa da ostalaritza establezimentuen % 33rentzat, eta merkataritzan eta zerbitzu enpresetan % 50entzat. Datu esanguratsua da ostalaritzan eta merkataritzan establezimentuen % 25ak ez daukala kontuan hartzean langilea euskalduna dan ala ez.

Daturik onenak errotulazinoari jagokozanak dira, kanpo errotulazino aldakorrean % 65ek ipinten dauz kartelak euskeraz edo ele bietan; eta barne errotulazinoan % 60k.

Arlo idatzian datuak ez dira hobeak, oro har, % 35ek dauka euskeraz egiteko ebatzia hartuta, eta emoitzei begiratu ezker, % 20k burutzen dau beharra euskeraz.

Emoitza horreen aurrean, aurrera begira jarri dira Euskera Planoak eta lehenengo ekimena euskerearen presentzia eta erabilerea arautzeko konpromisoa lortzea izango da. Hitzarmen eredu bat adosten dabiz Beinkekoakaz batera, akordio horrek jaso beharko leukezan gitxienekoak zehaztuteko eta urte amaierarako hitzarmena sinatu gurako leukie.

## ZEANURI

**Gorbeiaiko kurutzeak 111 urte beteko ditu 12an****Gorbeiaiko kurutzea.**Clara Luja Azpiri

Gorbeiaiko kurutzeak bere 111. urteurrena ospatuko dau zementiaren 12an. 1901eko egun horretan izan zan lehenengo kurutzearen inaugurazioa eta kurutze bat egon da bertan mende bat baino gehiago. Kurutzea ipintea orduko Aita Sainduak eskatu eban, Leon XIII.ak 1899 urtean. Mende barria etorrela eta, mendi tontorretan kurutzeak jartzea eskatu eban erlijiosoak eta Euskal Herriko komiteak, Zeanuriko herriaren zuzendaritzapean, Gorbeia mendia aukeratu eban. Gorbeian kurutzea egiteko lau egitasmo aurkeztu ziran eta

Casto Zabala arkitektoarena onetsi eban. Eraikuntza Lutxanako Serapio Goikoetxearen lantegian egin zan.

Baina ez da 1901eko kurutzea gaur egun tontorrean dagoana. Urte haretan egin zanak 33 metroko altuera eukan baina ez eban luze iraun: hilabete biren ostean ekaitz batek bota eban. Urte bi geroago ipini zan bigarrena, altuera bardinekoa baina sendoagoa zan. Hiru urte iraun zituan honek, 1906 urtera arte. Hurrengo kurutzeak (eta azkenak) egitura txikiagoa eta konpaktoagoa izan eban, Eiffel torrearen antzekoa. 17 m.ko altuera dauka eta Talleres de Zorroza lantegian ereigi eban, burdina erabiliz.

Denporea pasau ahala, elementu gehiago gehitu jakoz kurutzeari. 1926 urtean, berbarako, Biboko Athletic futbol taldeak gutunontzi bat ipin eban bertan, baina handik gitxira lapurtu eban. 1963an Baskonia mendi taldeak Begoñako Andra Mariaren harrizko irudi bat jarri eban eta lau urte beranduago brontzezko irudi batez ordezkatu. Mende luze baten ostean, eta gorabeherak gorabehera, Gorbeiaiko kurutzeak bertan dirau, Arratia osoa jagoten mendi tontorretik.

## IGORRE

**Herrian geratu da Herrirak zozketatutako mariskadea**Erredakzioa

Igorreko Herrirak 250 euroko balioko mariskadea zozketatu eban urri bigarrenean Garben burutzen dan azokan. 687 izan zan zenbaki sariduna eta Ander Gorosperen eskuetara joan zan saria.

Bestalde, Herriratik dei egiten

deutsee herritarrai presoen eskubideen aldeko ekimenetan parte hartzera, besteak beste hileko azken barikuetan egiten diran kontzentrazioetan, zementiaren 10ean Baionan izango dan manifestazioan edo Gabonetan burutuko diran ekimenetan.

## IGORRE

**Antena bateri su emon deusie**Erredakzioa

Eusko Jaurilaritzaren Herrizaingo Sailak jakitera emon ebanaren arabera, urri bigarrenaren 23an, goizeko zazpirak aldera, su emon eutsien

telefono antena bateri. Antena hau Igorreko Basauntz eta Basarte auzuneen artean dago eta bertan papel batzuk agertu ziran "Gora langileon borroka" leloagaz. Ertzaintza gertatutakoa ikertzen dabil.

## IGORRE

**Igorreztarron Batzarra parte hartze gune barria sortuko dabe**Erredakzioa

2011-2012 ikasturtean zehar udalgintzan parte hartze zuzenagoa lortzeko oinarriak eta egiturak landuten ibili dira Igorreko politikari, udal langile eta herritarrak, Elhuyar Aholkularitzaren laguntzeagaz. Guztira 87 lagunek hartu dabe parte prozesuan. Urrietan parte hartze prozesuaren aurkezpena egin eban partaideak, eta parte hartze gune barri bat sortuko dabela jakinarazo eban. Gune barria Igorreztarron Batzarra izango da.

Igorreztarron Batzarra urtean lau batzar egingo ditu eta herritarrak eurak proposatu ahal izango ditue bertan lantzeko gaiak. Aurkezpen egunean jada lehen batzarreko hainbat gai jarri ziran mahai gainean. Gainera,

tuko ditu. Udalak be hartuko dau parte auzo-batzarretan, gaiaren arabera, batez be aurrekontuakaz lotutako gaiak diranean" azaldu dabe Elhuyar Aholkularitzakoak.

Foroak be baliagarri izan dira udaleko ordezkari politiko, udal langile, herriko alkarteetako ordezkari eta herritar soilen artean zubi barriak sortzeko eta herriko eragileen arteko alkar ezagutzeko eta konfiantza areagotzeko, Elhuyarrekoren eretxian.

**Igorreko Kultur Etxean parte hartzaileak.**



## DIMA



Korrontzi eta Oinkari jantza taldea egongo dira zapatu gauean, hilak 10.

# Lehenengo folk jaialdia sortu da "Dima Folkean 12" izenagaz

Bertoko musika tradizionala entzun eta joteko aukerea egongo da Diman zemendiaren 9tik 11ra izango dan Folkean 12 jaialdian. Urruneko soinuak be entzun ahal izango dira.

### Erredakzioa

Australiako aborigenen didjeridooa edo country musikea, ekarriko dabe Iban Nikolai gipuzkoarrak eta Dead Bronco talde bizkaitarrak. Bertako musikeari jagokonean be aukera zabala: txalaparta monografikoa, luthier azokea eta instrumentu tailerrak, kontzertuak

eta antxinako erromeria Guardia Zibil eta abade eta guzti egongo dira, beste gauza batzuen artean. Gainera, antolatzaileak instrumentu bat jotzen dauan jentea "instrumentuagaz etortera eta hemen jotera konbidau" gura dabe.

Jaialdia Dimako Jai Batzordeak antolatu dau, Dimako Udala, Dimako Gaztetxea eta BEGITUREN

laguntzeagaz eta, euren esanetan, Arratian, folk jaialdi bat egiten dan lehenengo aldia izango da hau. Sano diru gitxigaz, apenas gasturik egin barik, prestatu dabe hiru eguneko jai egitaraua. "Jaietan diru bat atera genduan errifakaz eta herri bazkariagaz eta batzuk aspalditik geunkan folk jaialdi bat egiteko gogoia. Aprobetxau gura izan dogu

Igorrera instrumentu tradizionalak ekarriko dituela erakusketarako eta, holan, azokea eta instrumentu tailerrak eratu doguz. Bertako jentea ekarri dogu eta arratiarren parte hartzea ezinbestekoa izango da" azaldu deutso BEGITURI Jon Loiola Jai Batzordekoak. "Udalak ez dau dirurik ipini, materiala baino. Udalak daukan egoera ekonomikoagaz ezin geuntsan dirurik eskatu" gehitu dau Beñat Artabe antolakuntzakoak.

Hori dala eta, musika ikasleai eta instrumentu bat jotzen daben arratiarrai deialdia egiten deutsee antolatzaileak Dimako kaleetan emonaldiak egiteko.

### Antxinako musikea eta antxinako jantziak

Jaialdi honetan ez dira bakarrik kontzertu eta musika emonaldiak egongo. Esandako moduan, azokea eta tailerrak be egongo dira eta girotzeko, herri bazkaria eta "Lehenagoko erromeria". "Pasa dan mendearen hasieran Urkiolan-eta egiten zan moduan egingo dogu, antzerki modukoa izango da. Jentea orduko erropakaz etortera animau gura dogu eta horretarako saria izango dau antxinako jantzirik dotoreenak. Abadea eta Guardia Zibila be ez dira faltauko, jentea mozkortu ez daiten edo haragiaren pekatuak egin ez daian" dinoe Jon Loiola eta Beñat Artabek.

### Urruneko doinuak

Baina jaialdian zehar ez dira bakarrik bertako doinu tradizionalak entzungo. Iban Nikolai donostiarrak Australiako aborigenen didjeridoo-a ekarriko dau eta instrumentu honegaz kontzertua emongo dau gaztetxean. Nikolai Europa mailan instrumentu honetan adituenetakoa da eta bost

disco ditu merkaduan *Youlungur* (2001), *Didjeridu Hotsak* (2003), *Samar* (2006), *Hamar* (2007) eta *Alla Yidaki* (2010).

Kontrabajoa eta banjoa entzuteko aukerea be egongo da Diman. Izan be, country musikea jotzen dauan Mungiako Dead Bronco taldearen kontzertua egongo da zapatu gauean. Talde honek Hank Williams, Johnny Clash, Dylan eta beste batzuen bersinoak egiten ditu.

### Folkean 12. Dima Egitaraua

#### Zemendiak 9, barikua

19:00etan, Folkean 12, aurkezpena.

19:15ean, txalaparta monografikoa.

22:00etan, Iban Nikolaiaren kontzertua: Didjeridoo hotsak. Gaztetxean.

#### Zemendiak 10, zapatua

11:00etan, Luthier azokea eta instrumentu tailerrak.

13:00etan, kalejirea zanpantzar, albokari eta trikitalariakaz.

15:00etan, herri bazkaria frontoi txikian. Bazkalostean Oinarin jantza taldeagaz jantza tailerra.

19:00etan, 13 doinu, gaixotasun larriak daukien presoentzat.

21:00etan, kontzertuak Kherau taldea eta Korrontzi + Oinkari jantza taldeagaz frontoian; Dead Bronco gaztetxean.

#### Zemendiak 11, domekea

13:00etan, kalejirea gaiteru, giganteru eta buruhandiakaz. Talo tailerra eta dastaketea herriko plazan.

17:00etan, lehenagoko erromeria Argi eta Iker taldeagaz. Lehenagoko jantzirik dotoreenari saria emongo jako.

Erromeria bitartean, zozketea.

## ARRATIA

# BEGITU gero eta indartsuago sarean

### Erredakzioa

Irakurleakazko hartu-emonen sendotuteko BEGITU bere presentzia sarean indartu eta bultzatzeko asmotan dago. Holan, aldizkarikook facebook-a sortu dogu, BEGITU sare sozialetan be egon behar ebalda eretxita. Eta sortzeagaz batera 280 lagun egin dira lehenengo 6 egunetan facebook-eko lagun.

Beste alde batetik, gogora ekarri gura deutsegu irakurleai, gure webgunean inkesta bat dagoala gai baten gainean eretxia jasoteko. Urri bigarrean, "Uste dozu euroa itxi eta pezetara bueltauko dala Espainia?" izan zan itauna. Erantzun daben irakurle gehienak

pentsetan dabe ezetz (% 58,33), ondo errotuta dagoala euroa. Hain seguru ez daukie erantzun daben laurdenak (% 25) eta gitxi batzuk (% 16,67) uste dabe pezetea bueltauko dala. Zemendian itauna zera izango da: "Uste dozu hurrengo legegintzaldian Katalunia independizau egingo dala?", Erantzuteko sartu [www.begitu.org](http://www.begitu.org) webgunean. Gogoratu be webguneko edozein notiziatan komentarioak egin daitezkeza.

BEGITUREN 10 urtegarreneko Arantzazu, Areatza eta Arteako ekitaldien argazkiak gure webguneko Argazkiak atalean ikusi daitezke. Ondoko biak ekintza horreetakoak dira.

BEGITUK bere presentzia indartu eta bultzatzeko dau interneten





## GASTEIZKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

# Arratiak boto abertzalea emon dau Gasteizko Legebiltzarrerako

	Arantzazu	Areatza	Artea	Bedia	Dima	Igorre	Lemoa	Ubide	Zeanuri	Zeberio	Gutzira
Errolda	287	902	591	817	1.101	3.278	2.663	143	1.012	882	11.676
Botoak	244	708	494	599	908	2.390	1.967	115	843	665	8.933
Abstentzinoa	39	189	91	209	193	868	672	27	162	214	2.664
Baliogabeak	1	11	1	5	3	22	27	1	2	4	77
Zuriak	4	5	6	9	0	20	24	1	7	3	79
EAJ-PNV	117	315	242	336	350	1.097	799	29	407	354	4.046
EH Bildu	117	275	215	164	511	1.035	804	73	379	273	3.846
PSE-EE	2	34	13	42	6	112	139	4	11	16	379
PP	3	46	19	23	10	48	65	5	23	4	246
Ezker Batua	0	7	0	10	6	18	37	0	7	5	90
Ezker Anitza	0	7	0	5	8	16	27	3	3	2	71
UPyD	0	1	0	7	1	8	14	0	1	0	32
Besteak	3	12	4	7	13	34	55	0	10	7	145

**Erredakzioa**

Urri bigarrenaren 21eko Legebiltzarreko hauteskudeetan, EAJ-PNVk 27 jazarleku lortzeako, hiru lurretan 383.575 boto jaso zituan; EH Bilduk, 21 jazarleku eta 276.989 boto izan zituan; PSE-EEK, 211.939 botogaz lortu zituan 16 jazarleku; PPK, 10 jazarleku eta 129.907 boto, eta UPyDk legebiltzarkide bat lortu eban 21.492 boto jasota.

Gurean, 11.676 personak eukien boto eskubidea eta horreetatik 8.933k emon eban baliozko botoa; hau da, % 76,5ek. Abstentziorik handiena Igorren izan zan (% 26,48) eta txikiena Arantzazun (% 13,59). Legebiltzarrean jarlekua lortu eban partiduak boto honek lortu eban

Arratia-Ubide-Zeberion: EAJ-PNVk, 4.046 boto; EH Bilduk, 3.846; PSE-EEK, 379; PPK 246 eta UPyDk 32 boto. Gainontzeko botoak jarlekurik lortu ez dabenen partituen artean banandu dira.

Holan, Arratia, Ubide eta Zeberion alderdi abertzaleak 7.892 boto lortu dabek, eta ez abertzaleak 657. Euskal Herrian, "hiru parlamentaririk bi abertzaleak" izango dirala nabarmendu dau Mintegik, baina gure eremuan hamarretik bederatzik emon dabe boto abertzalea.

Herriz herri emoitak begiratzerakoan gauza bitxiak ikusi daitezke. Holan, esate baterako, Arantzazun boto kopuru bardina emon deutsee EAJ-PNVri eta EH Bilduri 117na boto, hain zuzen be.

**Arratia, Ubide eta Zeberion hamarretik bederatzik boto abertzalea emon dabe**

**Zugaitik BEGITUten dogu**  
A.P.I. 495  
[www.inmobiliarialarrea.com](http://www.inmobiliarialarrea.com)  
Lehendakari Agirre, 8 behea  
48140 Igorre  
Tfnoa: 94 631 80 04

**GALANTA**  
Barrutik jarzteko  
Zugandik sano hurbil  
Lehendakari Agirre 25, Igorre  
Telefonia: 94 631 90 08

**bbk**

**UDA GOIENENKO OSTERA**

**TARTEAN TEATROA ETA EZ DOK HIRU BIKOTEATROA**

**LINGUA NABAJURUM**

IGORRE, LASARTE ARETOA Azaroaren 23an, barikua, 20:00etan  
Sarrera: 6 €

Antolatzailea: topagunea

Babesleak: BFA DFB, bbk


Laguntzaileak: GARA, berria, Dela




Legebiltzarreko hauteskundeak, jazarlekuak



Legebiltzarreko hauteskundeak, botoak



Arratia, Ubide eta Zeberio



Josune Gorospe Arratiako Udalen Mankomunitateko presidentea eta Dimako zinegotziak jarlekua lortu eban urri bigarrenaren 21eko hauteskundeetan. Aurrera begirako bere asmoen barri emon deutso BEGITURI.

**EAIk Bizkaian atera dauz 11 jarleku legebiltzarrean, zu 11. egon zara zerrendan, beraz zuri jagotzu horreetako bat. Onartuko dozu? Zeintzuk dira zure asmoak, zure egitekoa, erronkak eta abar?**

Bai, onartuko dot. 2010etik hona legebiltzarkidea izan naiz eta herritarrak barriro aukeratu gaituenez, ohore bat da eta onartu eta legealdi honetan be lanean jarraituko dot.

Ez dakit aurrerantzean zeintzuk izango diran nire egitekoak Legebiltzarrean, hori Euzko Abertzaleak legebiltzar-taldearen antolaketearen arabera izango da. Orain arte batez be gizarte eta osasun arloetako gaiak eroan izan dodaz. Gure alderdiaren erronka nagusiak gure hauteskunde egitasmoan zehaztuta dagozanak izango dira. Hasteko, enplegua sortzea eta jarduera ekonomikoa suspertzea. Era berean, zerbitzu publikoen defentsa sendoa egingo dogu, batez be osasun arloan, hezkuntzan eta gizarte-zerbitzuetan.

Euskadi Europako nazinoa, EAJren leloetariko bat da. Euskadiren nortasun ekonomikoa eta kulturala munduan zehar islarazotea lehentasunen artean daukagu.

**Legebiltzarkide izanda Dimako zinegotzi eta mankomunitadeko presidente izaten jarraituko dozu?**

Bai. Ez dago ezelango eragozpenik Legebiltzarkide eta zinegotzi era berean izateko. Orain arte izan naz eta aurrerantzean be izango naz. Herri txikietako zinegotzi guztiak euren lanak -fabriketan, administrazioan, autonomo lez edo beste lanbide batzutan- eta zinegotziaren lana buztartzen dabe. Nik be hori egiten dot Legebiltzarkide lana eta udal esparruko lana buztartu.

Hori bai, beste zinegotzi guztiak gertatzen jakenez, gure familiak "sufriduten" dau. Orain arte gu etxean hiru izan gara aita, senarra Xabier eta ni. Aita aste honetan hil da (urri bigarrenak 23), eta aurrerantzean Xabier izango dot lagun bidean. 43 urte dodaz euretarik bi politikan, ez naz luzero egon baina nagoan bitartean buru-belarri sartuta egon naz. Legebiltzarrean, beraz, legealdiaren erdia egon naz. Azken urtean zinegotzia, mankomunitadeko presidentea eta legebiltzarkidea izan naz eta aurrerantzean be lan hori egitea da nire asmoa.

Ezin dana onartu da soldata bat baino gehiago eukitea. Nire soldata Legebiltzarrekoa da -aldeaz aurretik nire lanpostuan neukan eta aurrerantzean izango dodan soldataren parekoa-. Dimako Udaletik ez dot ezer kobretan eta mankomunitadetan urte betean egiten diran batzar guztiak joateagaitik 500€ inguru kobretan doguz urtean, asko jota. Mankomunitadetik hartzean dodan dirua Arratiako alkarteren bateri emongo deusat.

**Eta barriari ilusinoz ekingo deusazula pentsetan dot. Eta barri moduan ikusten dozu? Legebiltzar eta Lehendakari barri bat eukiteak konponduko dau ezer? Zer?**

Bai, ilusinoz, lan egiteko gogoaz eta apaltasunez heritarrak emon deuskuen konfiantzari ondo erantzuteko. Gauza batek poztuko ninduke benetan; lau urte barru, legealdia amaitzen danean botoa emon deuskuenak, eta emon ez deuskuenak be, pozik egon daitezala egin dogun beharraz.

Egoera ekonomiko larriari aurre egitea gure lehentasuna da, eta horretarako neurriak hartuko doguz, hauteskunde-kanpainan behin eta barriro esan dogunez. Legealdiko lehenengo bi urteak gogorak izango dira, azkenengo bietan gorantza egingo dogula uste dogu.

Bakegintzeari jagokonez, aro barri baten aurrean gagoz. ETAK jarduera armatua behin betiko etengo ebala iragarri zanetik zabaldu dana. Aurrerantzean bizikidetzan, bakea finkatzean, humanizetan eta gizartearen adiskidetzan emon behar doguz pausak.

Normalizazio politikoan be aurrera-pausak emoten jarraitu behar dogu. Oraingoan Legebiltzarrean danok egongo gara. Legebiltzar osoa izango dogu eta aukera barriak izango doguz.

**folkean 12**  
Dima 12

19:00 folklor 12 sorlekupena  
19:15 TXALAPARTA monografiak  
22:00 IBAN NIKOLAI Dilegibilak honak Gaztetxean

**Azaroak 10**  
zapataria

11:00 Luthier azoka eta Instrumentuen tailerra Piztas  
13:00 Kalejira Zainpantzar, albokari eta trikitilariak  
15:00 HERRI BAZKARIA (Ezker taldeak (Euzko Euzkoak) tabernatzen taldeak)

Bazkalostearen OINARIN taldeagaz dantza tailerra

19:00 13 doinu gaito larriak daukezan prezioentzat  
20:30 / 21:00 kontzertuak KHERAU KORRONTZI + OINKARI dantza taldea Piztas

DEAD BRONCO Gaztetxean

**Azaroak 9**  
barikua

19:00 folklor 12 sorlekupena  
19:15 TXALAPARTA monografiak  
22:00 IBAN NIKOLAI Dilegibilak honak Gaztetxean

**Azaroak 11**  
domekoa

13:00 Kalejira Gaitera, Gigante eta Burubandiekaz Talo-talerra eta dastaketa Piztas

17:00 LENAUKO ERROMERIE Argi eta Ikerregaz

Konoz! gaude sibil eta abadeak!! Lemako jostailik dotoreenari sari eder bat emongo joko.

Emozioen bitartean rifaren auketa egingo da.

**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridikea · Fiskala · Lanekoa · Kontabilitza

Askatasun 28. 1B 48143 Areatza  
Tfn. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**Bizkaifisios SLK**  
bi zentro ditu  
**Fisioterapia Zentroa Igorre**  
Elexalde 4  
Telefonoa 94 631 55 08

**Andra Mari Klinika**  
Fisioterapia Zentroa  
Pontzi Zabala 1. Galdakao  
Tel/faxa 94 457 23 64



## ERRUGBIA

**Sailkapeneko lehenak dira Arratiko Zekorrak****Ainhoa Duñabeitia**

Denporaldi hasiera itzela Zekorrena, lau partidu izan dabez eta ez dabe oraindino bat be galdu. Hiru irabazi eta bestea bardindu. Eموitza honeek dirala eta, sailkapeneko lehenengo postuan dagoz, 16 puntugaz.

Hernanin, izan eben neurketea Zekorrak urri bigarrenaren 25ean. Sailkapenean laugarren dagoan Hernani CRE B-ren aurka. Entsegu bategaz estreinau eben markagailua eta jagokon transformazioa sartu eben Zekorrak. 0 eta 7 markagailuan. Beste hiru puntu lortu eben golpe bateri esker. Nagusi ibili zan Arratiako taldea, itzel jokatu eben eta ez eben momentu bakar baten gogorik galdu. Neurketearen azken emoitzea 0 eta 10 izan zan.

Kadeteak, barriz, ez dabe denporaldia seniorrak bezain ondo hasi. Neurketetan gogor ekin arren ez dabe emoitza onik lortzen. Halanda be Zekortxoak astegoi honetan, urriaren 27an, San Txismen jokatu eben eta denporaldi hasierako boldada txarra alde batera itxita neurketea irabazi eben. 32-19 izan zan norgehiagoka horren azken emoitzea, denporaldiko lehen garaipena.

**Zekortxoak entrenetan.**

## FUTBOLA

**Arratiarrak polito ekin deustie denporaldiari****Arratiako neskek, Urbietan jokaturako azken partiduan.****Erredakzioa**

Arratia Futbol Taldeko kategoria desbardineta taldeak urri lehenengoan hasi eben denporaldia. Gizonezkoen talde nagusiak ondo ekin deustio ligureari, pasa dan denporaldian mailaz igon eta gero, orain Lurraldeko Lehentasunezko Mailan jokatzen dabiz. Zazpigarren jardunaldiko bardinketearen ostean, Otxarkoaga 1 Arratia 1, laugarren postuan dagoz arratiarrak. Hurrengo norgehiagokea hilaren 3an, arrastiko 17:00etan jokatuko dabe, Padura A-ren kontra Igorreko Urbietan zelaian.

**Euskal Liga**

Arratia Futbol Taldeko andrazkoak be urri lehenengoan hasi eben denporaldia eta gizonezkoak legez honeek be kategoriaz igon ziran igazko denporaldian, orain Euskal Liga jokatzen dabiz, liga honetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako

taldeak dagoz. Lehenengo 5 jardunaldiak jokatu eta gero Naia Bilbao igorretarrak zuzentzen dauan Arratia 8. da sailkapenean 7 puntugaz. Arratiak 0 eta 2 galdu eban Igorreko Urbietan zelaian jokatutako azken partidua Gastetiko neskek taldearen kontra. Hurrengo partidua Añorga B-ren kontra jokatuko dabe hilaren 3an, zapatuz, etxetik kanpo.

**Beste kategoriak**

Arratia Futbol Taldeak beste hainbat kategoria be baditu gizonezko zein andrazkoetan. Holan, Xabi Garcia eta Raul Calderonek zuzentzen dabiz Jubenilak 2. postuan dagoz 6 jardunaldi jokatu eta gero. Bizkarguenaga anaiak zuzentzen dabiz Kadeteak osterak 8. postuan dagoz eta Oscar Garro eta Unai Urutxurtuk zuzentzen dabiz Umeak azken postuan dagoz. Nesketan Umeak partidu bat jokatu dabe eta berau irabazi.

## PELOTEA

**Ziarrusta eta Erauzkinek One wall Munduko Txapelketea jokatu dabe****Erredakzioa**

One wall Munduko Txapelketan izan da Euskal Selekzioa eta laugarren egin eban Dublinen. Urrezko domina bat, Iker Gordonek irabazita; zidarrezko beste bat Amaia Araiztegi eskuratuta, eta binaka 19 urtez azpikoen laugarren postua, Ekhi Ziarrustak lortutakoa izan dira taldearen emoitzak. Selekzioan arratiar bi egon ziran, Dimako Ekhi Ziarrusta eta Lemoako Aitor Erauzkin. Arratiarrez gainera, Iker Gordonek, Mikel Larrañagak, Itsaso Praderak eta Amaia Araiztegi osotu eben euskal taldea.

"Penagarria izan zan txapelketako azken partiduan mutilak gi-

zonezkoen taldekako hirugarren postua lortu ezin izana. Hiru lehia jokatu behar izan ziran. Lehenik banakakoa, gero binakakoa eta azkenik, beste biak banakoagaz eta emoitza berberagaz amaituta (21-14), tie-break jokua banaka. Iker Gordonek guztia emon eban banakakoetan, baita Ekhi Ziarrusta kide eukala binakakoan, baina ezin izan eben garaipena lortu. Desenpatea Ecuadorko pelotariak irabazi eben 11-8 eta bere herrialdeari emon jakon podium-eko postua" azaldu dabe Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzatik.

Andrazkoetan Martina McMahon irlandarra nagusitu jakon Araiztegi mallabiarrari.

**Euskal Selekzioa. Ekhi Ziarrusta bigarrena ezkerretik hasita.**

**indar**  
Instalazio elektrikoak

Bidosola Industrialdea, pab. E 3-4  
48142 ARTEA - BIZKAIA  
T. 94 655 47 19  
indarsi@indars.es • www.indars.es

**FIXMI**  
KOPIDENDA JAONE IRAGORRI

LEHENDAKARI AGIRRE, 5  
48140 IGORRE  
BIZKAIA  
Tif: 94 612 02 41  
Fax: 94 612 02 46  
kixmikopi@gmail.com

**AKETEGIA**  
**GAY & LORA**  
**IGORRE**

Emilio Goitia banatzaile ofiziala

Ardoak Edariak

94 673 64 02 - Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

AHOLKULARITZA:  
LEGE-LAN ARLOAN

**ZUZENBIDE**

ZERGA ETA DERU KONSTUKTAN  
ONDARUN BERRUZKUTAN  
ASIGURUTAN

Sabin Arana, 3-3. floor 48171-41 - Fax: 94 673 64 01 - 41016 IGORRE

**axular**  
KULTUR ARLOAN

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92  
axularke@gmail.com

**ekin s.a.**  
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK  
INDUSKETAK  
GARRAIOAK  
UR SAREAK  
SANEAMENTU SAREAK  
BASERRI ETA BASORRI BIDEAK  
PABELLOAK  
URBANIZAZIOAK

Iturritz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)  
Tel: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25  
e-posta: obras@construccioneseekin.com

**Pinturas Anatia**

Javi Morato

Tel. 628 443 992



MENDIA

# Urubko eta Suarez-ek mendirako pasinoa izan eben berbaigai Igorren

**Erredakzioa**

Ganzabal Mendi Taldeak antolatu eta Alex Txikon aurkeztu dituan aurten Mendi Amesgariak proiektu zikloan, Denis Urubko eta Carlos Suarez sakon ezagutzeko aukera izan genduan urri bigarrenaren 25 eta 26an, hurrenez hurren. Hurrengo saioetan, zehazkiaren 8an, Leo Houlding da etortekoa eta 9an, Alex Txikon bere espedizio baten barri emongo dau.

Denis Urubko Kazajistaneok argazki-montaje baten bidez, bere bizia eta mendirako pasinoa konpartitu eban arratiarrakaz. Institutuan egoala hasi zan eskaladan, bera bakarrik, ekipamentu txarrakaz eta diru barik. Bere pasinoa gauzatzeko kalean be bizi izan zan Urubko. Txapelketetan parte hartuz, lagunak egin zituan eta famadu egin zan eta gaur egun babeslea dauka.

Mendian marka batzuk be egin ditu Kazajistaneok.

Carlos Suarezek be pasinoagaz lotuten dau mendia eta Urubkoaren moduan nerabea zala hasi zan eskaletan. Bideo eta diapositiba nahaste bat aurkeztu eban Igorren bere ibilbidea erakusteko. Suarez famadu egin zan, Leo Houlding-egaz Txinan mendi bat eskalatu ebalako. *Morir por la montaña* liburuaren egilea da eta *The Asgard Project* pelikulean be parte hartu eban. Aspaldion salto basean dabil buru belarri eta Txikonagaz Groenlandiako proiektura joatekoa zan, baina salto baten istripua izan eban eta ezin izan zan joan.

**Datozenak**

Hurrengo emonaldiak Leo Houlding eta Alex Txikon eskuetan izango dira, hilaren 8an eta 9an, arrastiko 20:00etan Igorreko Kultur Etxean.



Denis Urubko Alex Txikonagaz Lasarte Aretoan.

MENDIA

# Jardunaldiak Zeberion

**Erredakzioa**

Goi mendien inguruko astea antolatu dau Austarri Mendi Taldeak. Berbaldi eta proiektuak Zeberio udeletxean izango dira arrastiko zortziretan. Marimendi mendi taldea, Alex Txikon eta Unai Llantadaren espedizioak ezagutzeko aukera egongo da Zeberion.

Lehenengo berbaldia, hilaren 5ean, *Marimendi Perun: Andeak* izango da. Marimendi berrogei urte gorako andra euskaldunak osotuten daben mendi taldea da eta goi mendia egiten dabe. Andeatoko esperientziaren barri emongo dabe jardunaldi honeetan.

Hurrengo emonaldia hilaren 7an izango da, eta Alex Txikon lemoztarrak *Hurrengo Pakistan* izeneko berbaldia emongo dau.

Azkenik, zehazkiaren 9an, Zallako Unai Llantadak igaz egindako *Go Enkarteri-Everest 2011* espedizioa aurkeztuko dau.



Alex Txikon lemoztarra egongo da Zeberion.

MENDIA

# Arantzazutik Urbasara

**Erredakzioa**

Arratiako 40 lagun, gehienbat arantzazutarrak, joan ziran urri bigarrenaren 27an Arginatx Mendi Alkarteak antolatutako ibilaldira.

Arantzazuko Mendi Taldeak ibilbide bi proposatu eban. Martxa laburrak 10 km. eukazan eta Urbasako Parke Naturaleko altxorrik politena dan Urederra errekearen jaiotzea erakustea eban helburu. Bigarren ibilbidea gogorragoa zan eta hau be, Bakedano heritik urtenda, Pilatosen balkoira igon eban eta Amezkoa bailararen bista ederraz gozatzeko aukera eskeini eban.

BEGITUREN 10. urteurrena herri guztietan ospatzeko egitasmoaren barruan, hau izan da Arantzazun babestutako ekintza.



Ibiltariak Urbasako Parke Naturalean.

Izan be, Arginatx ospakizunean lagunduteko sano prest agertu zan hasieratik eta BEGITU Urbasako txangora konbidau eban. Euriak be ez eban arantzazutarren umorea okertu eta Bakedanoko tabernan egindako bazkariak hartuemonak

estutzeko eta ospakizun giroa zabalteko balio izan eban.

Antolatzaileen esanetan Arantzazuko jentek beti hartzean dau parte Arginatxek hilero antolatzen dauzan urtekeretan, 2009an taldea sortu zanetik.

**expert** **ARRATIA**

E posta: [expertarratia@cordevi.com](mailto:expertarratia@cordevi.com)  
Lehendakari Agirre, 15 Tel. 94 673 60 55  
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

**arratiako instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Airratutako sistemak - Aire zurgintza zentralizatuak  
Suteak kontrolatzeko zerbizua eta mantentze lanak

Igorreko Industrialek, Pub. 07  
Tel. Fax 94 673 62 76  
819 736 616  
48140 Igorre Bizkoa

**HERRIKO BENTA**

HERRIKO PLAZA,  
48142 ARTEA (Bizkaia)  
Tel. 94 631 72 56

**Gure Ikastetxeak**

Arratiako Herri ikastetxeak 2 urtetik 10ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI  
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI  
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI  
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI  
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

Arantzazuko Herri Eskola  
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Arantzaz

Zeanuri HI  
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI  
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI  
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezikuntza, Lehen Hezikuntza, Derrigorrazko Bigarren Hezikuntza, Batxilergoak, Hezikuntza zikloak



## IRAKURLE TXOKOA

Unai Elorriaga idazleagaz  
berbaldia Igorren

## Erredakzinoa

Igorreko Irakurle Txokoak ekitaldi irekia antolatu dau zemendiaren 12an. Astelehen horretarako, Unai Elorriaga idazle algortarra konbidatu dabe *Londres kartoizkoa* da liburuaren gainean berba egiteko.

Elorriagak idatzitako lan hori 2009an argitaratu eban Elkar argitaletxeak. Momentuz, bere azkeneko fikzio-lana da. Horren aurretik, beste hiru idatzi ebazan, euron artean Espainiako Narratiba Saria irabazi eban *SPrako tranbia* (Aitzol Aramaiok zinemara eroandakoa, *Un poco de chocolate* izenagaz).

Igorreko Irakurle Txokoa hilean ba-

ten batzean da, astelehenez, taldeko kideak aukeratu eta irakurri daben liburu baten gainean berba egiteko. Lan guztiak euskerazkoak izaten dira, euskal literaturakoak zein itzulpenak. Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatutako proiektu hau uda ostetik bagilera bitartean egoten da martxan.

Zemendiko liburuaren gainean berba egiteko, txokoko partaideak ebatzi dabe liburuaren idazlea ekar-tea, eta ekitaldi ireki legez planteatu-tea jente barria taldera animetako. 12ko berbaldian aukerea egongo da Elorriagari liburuaren gaineko itaunak egiteko, edota eretxiak partekatutako. Ekitaldia 19:00etan hasiko da Kultur Etxean.

## ZINEA

Areatzan  
zineforuma

## Clara Luja Azpiri

Zineforuma udaletxeko aretoan izango da. Kultur eta Kirol sailaren programarean barruan dago eta Jose Angel Rebolledoren kolaborazioa izango dau. Hiruhile bako-txean gai bat egongo da eta gai horren inguruan film bi eta berbaldi bat egongo dira.

Programa pedagogikoa egitea, eta diru baliabide asko behar ez dabezan ekintzak antolatzea da idea, Kirol eta kultur saileko iturrien arabera. Holan, Arte Ederretako irakaslea izandako eta zineman aditua dan Jose Angel Rebolledogaz ipini ziran kontaktuan, urte osoko programea planifiketako.

Hiruhilabete bakotzak protagonista bat izango dau (persona bat zein gai bat) eta horren inguruko film bi eta berbaldi bat egongo dira. Lehe-

nengo gaia Charlie Chaplin zinema-gilea izango da. Chaplinen hiruhilabetearen barruan proiektuak diran filmak *Candilejas* (1952) eta *Lucas de la Ciudad* (1931) izango dira.

Berbaldiak Rebolledo irakasleak emongo ditu eta gai edo persona horren alderik garrantzitsuenak azalduko dira bertan. Hiruhilabete honetako berbaldian, Chaplinek zinemaren mundura ekarri zituan banrikuntzak eta berezitasunak azalduko dira. Hilaren 8an, 19:30ean udaletxeko aretoan izango da hau. Berbaldiak zein filmak gaztelaniaz izango dira.



## BERTSOAK

Egaña eta  
Lizaso  
bertsotan  
Arantzazun

## Erredakzinoa

San Martinetako bertso bazkaria antolatu dau Arantzazuko Bilduk Andoni Egaña eta Sebastian Lizasogaz zemendiaren 17an. Bazkaria Arantzazuko frontoian izango da (baimenaren zain). 11:30ean Eleiz

portaleko Gazte Asanbladaren eskutik baseri jokoak egongo dira. Amaitutakoan, 13:00etan, triki-poteoa heretik. Bazkaria osterara 14:30ean izango da. Bertaratuko diranak menu hauxe izango dabe: baba-jana sakramentuakaz, postrea, kafea eta kopea. Digestinoa arinduteko, bertsoak eta otzarearen zozketea egingo da. Ostean, euskal kantak eta erromeria Jon Loiola eta Ibai Aranagaz. Sarrerak lortzeako Igorreko Gau Lora Akeitegira, AZ Rugby Taldearen Tabernara edo Axular Herriko Tabernara, Dimako Jentilzubi Herriko Tabernara edo eta Arantzazuko Herriko Tabernara zein Montero Tabernara jo beharko da.

## MUSIKEA

Borja Estankonak *Fruitua* diskoa atera dau

Hilaren 10ean, kontzertuan izango da Igorreko Kultur Etxean.

## Erredakzinoa

Bere musika ibilbideko bosgarren diskoa grabatu barri, Arteako musikaria laster hasiko da abesti barriak erakusteko kontzertuak emoten. Aurreko laneko musikari barriak grabatu dau lana: bajuan, Itxaso Etxebeste tolosarra, eta, baterian, Jimmy Arrabit ziburutar ezaguna (Itoiz, Anje Duhalde, King Mafrundi...). Borjak berak gitarrea eta abotsa ipini dauz; horrezaz aparte, berak konposatutakoak dira abesti guztien musika eta letrak.

Gasteizko Sonora estudioan, Iñaki Alonso teknikariagaz grabatutako abestiak hain geratu da gustura ze, ebatzi daua *Fruitua* izena ipintea lan barriari. Beharragaz landutako frutuaren heldutasun eta biribiltasunaren sensazioa emon deuto hamaika abesti batzean dauzan disko honek Estankonari.

Bere izenean argitaratutako bigarren lana dogu oraingoa. Horren aurretik, Arian hirukoteagaz beste disko bi atera zituan (*Arian* eta *Higakorra*), eta Euskal Idazleen Elkarteko proiektu lez talde-lanean egindako beste bat: *Atera dena*.

Gero, bere izenagaz segidu dau musikearen munduan; hasieran bakarlarri legez, eta azken urteotan hirukote formatoan Itxaso eta Jimmygaz. Holan argitaratu ditu *Estankona*, 2011n, eta *Fruitua* aurton. Biak Baga-Biga disketeagaz.

Musikariak garapen argia ikusten dau bere ibilbidean. Arian taldearen sasoiko post-rocka albo batera itxita, gaur egun tonu klasikoagoetan kokatzen dau bere lana; betiko konpositoreen ildoan: Neil Young, Leonard Cohen edota Robert Plant.

Taula gainean be, hirukotea askoz osotuago dago orain, Estankonaren

eretxian, diskoa grabatu orduko hainbat ordu emon dabez-eta batera jotzen. Aurreko lana grabetako, osterara, oso gixitan ensaiatu eben alkarregaz; eta hori igarri izan dala dino. Aurrera begira, bide interesgarria zabaldu daualakoan emonaldietarako prestatzen hasi da.

## Kontzertuan, Igor ania lagun

Zemendiaren 10ean, 21:30ean, Igorreko Lasarte Aretoran emongo dauan kontzertuan bestelako laguntzaileak be eukiko dauz taldeak. Alde batetik, Borjaren ania Igor Estankona poetak bere lan batzuk errezitatu dau emonaldiko tarte batzuetan. Igorrek hainbat poemabilduma ditu argitaratuta, euron artean: *Anemometroa*, *Tundra* edota *Iratzeen esporak*. Beste aldetik, txalapartariak be izango dira taula gainean *Fruitua* diskoko "Aitortzea" abestian lagunduteko.

## BERTSOAK

Iñaki Iturriotz  
finalaurreetara

## Erredakzinoa

300 lagun inguru batu ziran urri bigarrenaren 27an arrastian Mungia-ko Olalde aretoan Bizkaiko Bertsolari Txapelketako hirugarren finalaurreetara bertatik bertara jarraituteko. Sei bertsolarietatik Fredi Paia lortu eban puntuaziorik altuena eta finalaurreetarako zuzeneko txartela lortu dau. Iñaki Iturriotz izan zan bigarren eta ia ia seguru finalaurreetan egongo da txapelketako Arratiako ordezkari bakarra.

Honeexek izan ziran Mungia-ko puntuazinoak: Fredi Paia 443,5. Iñaki Iturriotz 393,5. Ander Elortegi 377. Malen Amenabar 370,5. Txaber Ormazabal 352. Peru Vidal 345.

Domekan, urri bigarrenak 28 izan zan laugarren kanporaketea Sopolako frontoian. Kantuan Igor Elortza, Gorka Lazkano, Joseba Artza, Garikoitz Sarriugarte, Nerea Ibarzabal eta Ekaitz Larrazabal "Katxo". Igor Elortzak irabazi eban Saioa. Lau dira ba jada finalaurrekoetarako zuzenean sailkatutako bertsolariak: Iratxe Ibarra, Ibon Ajuria, Fredi Paia eta Igor Elortza. Bosgarren eta azken kanporaketea hilaren 4an izango da Zornotzako Zelaieta zentroan 17:30ean.

## MUSIKEA

Musika Tresna  
Egileen  
inguruko  
jardunaldiak

## Erredakzinoa

Zemendiaren 12 eta 18 bitartean, Igorreko Kultur Etxean Euskal Herriko Musika Tresna egileen inguruko jardunaldiak izango dira Txoke! Alkarteak Udalaren laguntzeagaz antolatuta.



Musika instrumentuak.

Erakusketak, proiektuak, mahai-inguruak, tailerrak eta kontzertuak egongo dira jardunaldi honeetan.

Jardunaldi honeen helburua da musika tresna egile artisauen egoeraren barri emotea, gizarteak kontzientzia hartu daian. Astebarruan hainbat ekintza izango dira, erakusketak eta proiektuak, barbarako eta astegienean "Euskal Herriko eta atzeriko artisau, museologo eta jakitunak mahai-inguruak eta musika tresnen inguruko tailer didaktikoak antolatuko dira" emon dabe jakitera antolatzaileak. Zapatu eta domekan, hilak 17 eta 18, kontzertuak egongo dira.



## BERBALDIA

# Jon Sarasua: "Euskal Estatuak ez leukez hiztun komunitatearen arazoak konponduko"

Hizkuntza gixtuen erreperazioan munduan euskaldunak erreferente bat garala dino Jon Sarasuak. Aurreko 50 urteetan egindako lan izugarriak ez ditu espero ziran emoitzak euki eta "hiztun komunitatea gaisorik dago". Holan esan eban, Aretxabaletako soziologoak Areatzan, urri bigarrenaren 17an emondako berbaldian.

### Erredakzioa

Soziologoak esan ebanaren araber, aldaketa sasoian gagoz eta estrategia barriak ebatzi behar dira, euskereak iraungo badau. "Askotan gure estrategien itxaropena politikagintzan jartzen dogu, oso joera nabarmena da hori. Uste dogu hau konponduko dala ez-dakit-nortzuk iristen diranean Jaurilaritza, edo independentzia datorrenean. Baina, euskal kulturearen eta euskaltasunaren burruka herriko dinamikan jokatzeko da neurri handi baten".

### Gizarte antolatuan dago euskerearen etorkizuna

Hiru podere gune bereizten ditu Sarasuak. Podere publikoa, hau da, estadia (Espainiako gobernu, Eusko Jaurilaritza, Foru Aldundiak eta Udalak); enpresa pribadua (kapitala) eta gizar-

tea bera, gizarte antolatua. Eta "hiztun komunitatearen nukleo sinbolikoa gizarte antolatuan dago. Hizkuntzearen iraupena ez da udalaren lana, ez da alderdi politiko baten lana" esan eban Sarasuak.

Izan be, azken 50 urteotan, euskera biziberritzeko egin dana herri dinamikan oinarritu da. Hortik sortu ziran, ikastolen mibimentua, euskera batua, AEK, euskal komunikabideak... Baina hau danau kuantitatiboki aurrerapausu izugarria izan bada be, kualitatiboki ez da espero zana gertatu eta erabileran ez dau hainbeste eragin izan. Horregaitik eta globalizazioaren sasoi barriak dakarzan erroka barriari aurre egiteko estrategia barriak behar dira. "Gure etorkizuneko estrategietan motibazioaren erreproduktzioa oso gai garrantzitsua izango da. Eta horretan herrietako dinamika oso inpor-

tanteak dira".

### Arazo existentziala

Hizlariaren eretxian, euskalduna izan ala ez izan da jokoan daukaguna, arazo existentzial bat. Euskerea bizirik iraun arazotea, "independentziagaz egingo da? edo independentziak hamar urte iraungo dau eta Alemaniak inbadituko dau Europa eta Alemaniaren probintzia bat izango gara? Kasu horretan be, hizkuntza komunitate honek bere hizkuntza eta kultura biziberritzea eta transmitidutea lortuko dau ala ez? Nik uste dot, itauna horixe dala. Horregaitik, arazo armatu eta arazo politikoa baino, muinean daukagun arazoa, arazo existentziala da".

### Politika handiaren ezintasuna

Sarasuak abertzale moduan definitu eban bere burua eta euskal estatu baten aldekoa, baina

estatu batek ez leukeala euskerearen jarraipena bermatuko uste dau. "Izan gaitezen serioak! Sektore bat egon da esaten "ez, ez, eske ETaren auzia, ez eske...". Eta ETA bukatu da, esanez, "joder! hobeto orain dala 30 urte itxi izan bagenduan". Orduan izan gaitezen serio: es-

tadua bale, burruka politikoa oso ondo; baina ipini daiguzan gure indarrak, ipini behar doguzan leketan. Esaterako, Gipuzkoako Diputazioan egon da aldaketa politikoa, baina Bilduk ez dau euskereari emoten jakon diru porzentajea aldatu. Eta kultureari emoten jakon porzentajea gixtutu egin dau. Egin ditu gauza bistoso batzuk presaurerakoak emoteko eta holan. Baina ez pentsa Bilduk konponduko dituanik Gipuzkoako hiztun komunitatearen arazoak. Eta borondatea ikusi dogu Egin eta Gararen hizkuntzearen tratamantuan. Deia eta Noticias-en antzekoa izan da". Politikan edozein gauza gertatzen dala be, hizkuntza garatzeko erantzukizuna hiztun komunitatearena dala ondorioztatu eban Jon Sarasuak.



Jon Sarasua eta Jasone Aldekoa mahaietan.

## DUNBA

# Arteako Kultur Kirol Taldea



Kanporamartxo.

### Arteako eskolako ikasleak

Aste honetan 5. eta 6. mailako ikasleak kazetari lanak egin doguz eta Artean aspalditik martxan dagoan Kirol eta Kultur Taldeko kide biri, Iñigo Ramoseri eta Imanol Agirrerri alkarrizketea egin deutsegu zoezer gehiago jakiteko AKKTri buruz.

### Zer da AKKT?

Artean aspaldi kirolaren inguruan sortutako talde bat da. Orain dala

urte bi berreskuratu egin genduan talde hau. Artean eta Arteko jentegaz ekintza desbardinak egiteko, kirolari eta kulturari lotutako ekintzak batez be.

### Noiz sortu zan?

Zezeilan urte bi egingo ditu. Urte askotan erdi geldituta egon da, eta ez da ekintza askorik egin.

### Zelan bururatu jatzuen taldea sortzea?

Plazan eta umeakaz batera gengozala, gazteak batu ginan, kirolaren eta umeen inguruan ekintza desbardinak egiteko.

### Zenbat kidek osotuten dabe taldea?

Gixti gorabehera 200 inguru, adin guztietakoak: 2 urteko umeak, gazteak, helduak... Arteakoak ez diranak be badagoz taldean.

### Badaukazue lehendakaririk eta idazkaririk?

Bai, holako talde bat sortzeako derigorrezkoa da. Juntan lehendakari, lehendakari ordea, idazkaria eta bokalak daukaguz.

### Nortzuk eta zelan prestatzen

### dozuez ekintzak?

Hilean behin edo alkartuten gara eta aurreko urtean egindako ekintzen antzekoak prestatzen doguz. Hasieran gatxagoa egin jakun, ekintzak lehenengoz prestatu behar genduzalako. Adibidez, oraingo astegoienean mendi bizikleta martxa bat egon da, igaz be data horretan egin zalako. Ekintza bakotxean pertsona bat edo bi dagoz arduradun.

### Zer ekintza mota egiten dozuez?

Ekintza gehienak kirolari lotuta dagoz, baina pasa dan urtean hilabete kultural bat egin genduan, gero gaztainak biltzera be joan ginan, gabon kantak be egin genduzan... Dana dala arduraduna ez izan arren, edozeinek proposatu ahal ditu ekintzak. Adibidez norbaitek antzerki tailerra aurrera eroan gura badau prest egoten gara lagunduteko.

### AKKT ko kideak ez diranak be parte hartu ahal dabe prestatzen diran ekintzetan?

Ekintza batzuk, adibidez gabon kantak eta gaztainak batzea Artekoentzat bakarrik dira. Beste batzuetan, aldiz, mendi martxetan, ziklismo ibilbideetan... herriko jentetik aparte inguruko herrietako

jente askok parte hartzean dau.

### Orain arte egin dozuezan ekintzetatik zein izan da arrakastatsuen edo jente gehien batu dauana?

Arrakastatsuen edo partaidetza handiena izan dabenak, Auzorik Auzo, errepideko bizikleta martxak, perkusino tailerra Romeogaz eta astegoienean honetan egin dan BTT martxa dira. Janaren inguruan antolatzen diran ekintzetan partaidetza beti izaten da sano handia, adibidez: txixiburruntxi, indaba lehiaketa... holakoetara jente asko joaten da.

### Ekintzak egin ahal izateko badaukazue diru-laguntzarik?

Bai, Udalak urtero dirua emoten deusku eta saiatzen gara beste leku batzuetatik be dirua lortzean. Bazkideak urtero kuota bat ordaintzen dabe, helduak 10 € eta umeak 5 €. Normalean egiten doguzan ekintzetan saiatzen gara diru askorik ez gastetan. Jente askok parte hartzean dauan ekintzetan partaide bakotzak diru bat ordaintzen dau izena emotean eta ateraten dogun diruagaz beste ekintza batzuk egin daiegun.

### Zelako ekintzak egingo dozuez hemendik aurrera?

Batzuk betikoak dira, batzuk aita-



tzearren: martxa zikloturistea, frontenis txapelketak, rallyak, orientazio ariketak, AKKT eguna ospatu dogu indaba txapelketa batez eta ostean umeentzako jolasak eta jantzaldi bat be egon zan. Gaztainak batzean joango gara, gero gabonetan jateko, orientazio proba gaez, gabon kantak...

### Norentzat prestatzen dozuez ekintzak?

Saiatzen gara danentzat prestatzen, dana dala, batzuk pentsauko dabe eurentzat ez dala ezer egiten. Kirolaren inguruko ekintzak, kultureari be garrantzia emoten deusku eta umeentzat be hainbat gauza egiten doguz.

Egileak: Johnny Celis, Peio Egia, Irati Garai, Sergio Argüelles, Egoitz Etxebarria, Irantzu Etxebarria, Janire Etxebarria, Oier Garai, Amaia Jauregi eta Leire Jauregi.

## AGENDEA

### ZEMENDIA ARRATIA

"Hezitzaileentzako hezkuntza estrategiak, genero, identitate eta eredu sozial ikuspegitik" ikastaroa Igorreko Kultur Etxean zemendiaren 10 eta 17an.  
10:00etatik 14:00etara. Arratiako Udalen Mankomunitateko Gizarte Ekintza Sailak antolatuta. Izena emoteko epea zemendiaren 8ra arte mankomunitadearan.

### ZEMENDIAK 2 AREATZA

21:00etan, *Buaahhh txabal!!!* Antzerki lana Udal Aretoan.

### ZEMENDIAK 3 DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" errepresaliaduen aldeko konzentrazioa. Herrirak antolatuta.

### IGORRE

22:00etan, zinea *Amor bajo el espino blanco*. Lasarte Aretoan.

### ZEMENDIAK 4 IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Kerity, la casa de los cuentos*. 19:30ean, zinea *Amor bajo el espino blanco* Lasarte Aretoan.

### ZEMENDIAK 5 ZEBERIO

20:00etan, Austarrik antolatutako mendi jardunaldiak. *Marimendi Perun: Andeak*. Udaletxean.

### ZEMENDIAK 7 ZEBERIO

20:00etan, Austarrik antolatutako mendi jardunaldiak. *Hurrengo Pakistan*. Alex Txikon. Udaletxean.

### ZEMENDIAK 8 AREATZA

19:30ean, Zineforuma. Jose Angel Rebolledoren eskutik, Charlie Chaplin.

Udaletxeko aretoan.

### IGORRE

20:00etan, Leo Houlding "Mendi Amesgarriak" Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako proiektuzko zikloa. Lasarte Aretoan.

### ZEMENDIAK 9 DIMA

"Dima Folkean" ikusi egitaraua 7. orrialdean.

### IGORRE

20:00etan, Alex Txikon "Mendi Amesgarriak" Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako proiektuzko zikloa. Lasarte Aretoan.

### ZEBERIO

20:00etan, Austarri Mendi Taldeak antolatutako mendi jardunaldiak. *Go Enkarterri-Everest 2011*. Unai Llantada. Udaletxean.

### ZEMENDIAK 10 DIMA

"Dima Folkean", ikusi egitaraua 7. orrialdean.

### LEMOA

Jubiladuen eguna. 12:30ean, mezea.

13:00etan, Durundi Barri Dantza Taldea.

14:15ean, Bazkaria. 16:30ean, Pelota partiduak.

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta urtekera perretxikotan hurrengo egunean erakusketea egiteko.

### ZEMENDIAK 11

#### AREATZA

Ibilaldia Itxinara.

#### DIMA

"Dima Folkean". Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

#### IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *El diario de Greg: días de perros*. 19:30ean, zinea *Si de verdad me quieres* Lasarte Aretoan.

#### LEMOA

Nekazaritzako Elikagaien Azokea.

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta erakusketa mikologikoa.

### ZEMENDIAK 12

#### AREATZA

Gorbeiaiko kurutzera igogera bere 111.

urteurrenean.

### IGORRE

Hilaren 18ra arte, Euskal Herriko musika tresna egileen inguruko Jardunaldiak. Txoke alkarteak Igorreko Udalgaz batera antolatuta.

19:00etan, Irakurle Txokoa Unai Elorriaga egongo da *Londres kartoizkoa da bere liburaren gainean berba egiten*. Kultur Etxean.

### ZEMENDIAK 15

#### AREATZA

19:00etan, "Emakumearen kontrako biolentzia ekonomikoa" tailerra udaletxean.

#### IGORRE

20:00etan, Zinekluba *One flew over the cuckoo's nest*. (Milos Forman, 1975).

### ZEMENDIAK 16

#### LEMOA

Gauean, Larregi taldearen kontzertua "Bidea dugu helmuga" disko barriaren aurkezpena egiteko Karabie Gaztean.



## Estankona taldearen kontzertua Igorren

Borja Estankonak gidatzen dauan taldeak *Fruitua* izeneko disko barria aurkeztuko dau Igorreko Kultur Etxean emongo dauan kontzertuan zemendiaren 10ean gaueko 21:30ean.

Aurreko diskoan legez, Borja Estankonagaz batera Jimmy Arrabit izango da baterian eta Itsaso Etxebeste bajaran. Disko honetan Estankona sendoago jatorria eta bere musikearen eremuak zabaldu egin dirala dinoe kritikoak.

Kontzertuan, Igor Estankona idazlea be egongo da eta berak idatzitako poema batzuk errezitauko ditu.

## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### SALGAI

Garaje partzela salgai Lemoa erdigunean. 660 549 695 Bego.

#### SALGAI

Haretezko arasa ederra salgai. 139zm zabal, 50 sakon, 193 altuera. Ikusgai dago Elexalde 10ean, Igorren. 800 €. 615 731 182.

### DANERIK

#### BASERRIA ALOKATU GURA DOGU

Alokairuan dagoan baserri edo etxea gura dogun bikote bi gara. 685 707 176 Eider.

#### GARBIKETAK

Etxeak, portaleak, bulegoak... garbitan dodaz. Etxeko beharrak egin eta adinekoak be zaintzean dodaz. Telefonoa 666 238 081 (Cristina).

#### UMEAK JAGOTEN DODAZ

Arrastiko ordutegian umeak jagon edo klase partikularrak emoteko prest nago. Kotxeduna. Interesdunak deitu

zenbaki honetara 600 759 434 (Naiara)

Telefonoa.

#### LEKU BILA

Txakurrak eukiteko leku txiki baten bila nabil (Iker 680 518 473).

#### UMEEN ZAINZAK

Umeakaz esperientzia daukan neska bat zuen seme-alabak jagoteko prest dago. kotxeduna (Pili 686 728 843).

#### KLASE PARTIKULARRAK

Euskal Filologian eta Haur Hezkuntzan titulauako neska gaztea naz eta klase partikularrak emoten dodaz. Esperientziaduna. 652 744 411 (Itziar).

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)-era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

### Zenbaki honetako saridunak:

# 1

**Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Estankonaren kontzerturako.**

Anuska Emaldi (Zeanuri)  
Oihane Goioaga (Igorre)



# 2

**Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Si de verdad quieres filmarako.**

Ibon Iza (Dima)  
Irene Bilbao (Igorre)




Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 10 urte eta ehundaka lagun.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Azken letra. Nasai. 2.- Galdera aurretik. Karga. 3.- Bular. Letra bat. 4.- Trebe. Interjekzioa. 5.- Oreka. Leial. 6.- Begien bidez egiten da. Bokala. 7.- Begiak ixita. Jazoera. 8.- Bokala. Aldarte. 9.- Etxe aurea.

### GOITIK BEHERA

1.- Oinetako mota bat. 2.- Labasu. Bokala. 3.- Letra bat. Basoko zugatz bat. Ospa, alde. 4.- Narru. Lepo. 5.- Birritan, barra-barra. Kastigu. 6.- Amerizioa. Parea. Inesiboan erabilia, aldean, inguruan. 7.- Adiskidea. Bizkaiko udalerria.



Topau ospitale baten egon leitekezan zazpi gauzaren izenak.

A	R	T	E	K	O	A	S	L	A
B	E	R	T	A	L	I	S	I	A
U	R	R	E	M	A	R	R	A	K
S	I	A	I	E	G	A	U	M	A
U	N	D	A	Z	I	D	A	R	E
H	J	O	A	N	A	N	T	U	A
I	E	G	U	A	Z	I	X	K	B
L	K	A	L	K	E	A	N	O	R
T	Z	A	U	A	R	Z	G	A	L
X	I	R	K	K	A	K	A	Z	A
O	N	G	A	K	I	T	O	B	A
L	O	U	M	A	I	D	E	R	K
E	A	S	O	L	O	H	E	A	R
K	I	R	T	A	M	A	L	M	A
A	B	A	R	T	E	H	I	Z	A

# AKI MI KO

Igorren Menika



**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

**ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA**  
Instalazio elektrikoak • Aberiak  
Telekomunikazioak  
Material elektrikoa  
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa  
Tlxoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

**Dia %**  
**PEDRO AUTOSERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

*Los Chopos*  
neurritza egindako armairuak  
Audi, Los Chopos, 35 (Nugat) Tel.: 94 630 40 94  
**Esposizinoa eta fabrika Lemoan**  
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44  
www.armariosloschopos.com

**ZEKUTZE**  
JATETXEA  
Sabino Arana, 34  
48140 IGORRE - Bizkaia  
Tel.: 94 631 52 83  
zekutze@netx.com

**INCOESA**  
Tel. 94 631 32 75  
Faxa. 94 631 37 66  
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

**\* KIRRU \* ILEAPANDEGIA SOLARIUM**  
Roberto eta Rosana  
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)  
• 94 631 92 00

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN ★ SOLARES  
Polig. Mendietan, 3 48330 LEMOA, Bizkaia  
Tel. 659 482 830 fax 659 206 727

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3a ☎: 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia ☎: 609-79-40-54

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

**Igorren ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

**Umeen moda 0-20 urte**  
• Boboli • Ray • Aranda  
• Anr • Gutsuiter • Arandiga  
• Guandeb • Leiz • Haspasa  
**sein**  
LEHENDAKARI AGIRRE, 23 • 946 319 246  
seinmoda@hotmail.com

**GARANTXE Autoeskola**  
TEORIA BUKARRAZ ZEIN ERDARAZ  
Baleonak: A1, A, B11, B  
Lehendakari Agirre 23  
Tlxoa: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@netx.com

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karmela eskolaraz zein erdoraraz  
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefonoa 94 631 34 31 Faxa 94 673 70 83  
e-posta: unak@arratia.net



## LARREGI

**"Diskoaren izena bera da taldearen filosofia"**

Oztopoak oztopo, pentsau baino beranduago baina seguru, badator barriro be Larregi taldea. Ez dator esku hutsik ostera, "Bidea dugu helmuga" izeneko diskoa dakarre-eta mutilak. Maketatik hona pausu bat gehiago emon dabe eta euren estiloa definitu. BEGURI azaldu deusienez, hamabi kantaz osatutako diskoan barrikuntza zein kolaborazio desbardinak igari ahal izango dira. Zemendiaren 16an Lemoako gaztetxean egingo dabe aurkezpena.

Irati Urien

**Zergaitik bigarren disko hau?**

Maketea 2010ean atera genduan. Segiduan kanta barriak egiten hasi ginan eta argi geunkan bigarren disko bat aterateko asmoa geunkala. Asmo hori udabarrian hasi zan.

**Espero zenduena baino gehiago luzatu jatzue ostera.**

Bai. Asmoa hasiera baten bagilean ateratekoa izan zan. Baina atzeratu egin jakun. Jon Rodríguez kanpora joan zan, nahasketak egiteko be teknikoa beste talde batzukaz hasi zan grabetan... Udan be, bagiletik urri lehenengora, parauta egon ginan.

**"Bidea dugu helmuga" da diskoaren izena. Zer esan gura dozue horregaz?**

Trasmitidu gura dogun idea zera da, talde lez eta bizimoduan bertan ahalegindu behar garala diskrutetan bidean bertan eta ez deusagula ez dakit ze helmugari edo helburu handiri begiratu behar. Askotan ahaztu egiten jaku egunerokoagaz disfrute-

tea. Talde lez be hori da gure filosofia, ez deusagu taldeari helburu zehatzik marketan. Diskoa oraintxe atera dogu baina udabarritik hasita diskrutetan ibili gara grabazioagaz. Sufriduten be bai, zelan ez, baina bidea diskrutatu dogu. Ez dogu taldea behar moduan erabilten. Lagunak alkartuten gara eta familia baten moduan jotzen dogu. Kontzertuak emoten, ondo pasetan... afizino bat.

**Zelangoa da diskoa, zer topauko dogu?**

Maketearen bidetik doala esango neuke. Baina maketatik hona eboluzino handia dagoala argi dago. Gure estiloa definitu egin dogu orain. Maketako ezaugarri nagusiak errepertetan doguz: rock musika euskeraz eta melodia askogaz. Abestiak apur bat *kantero*agoak dira, danak ez baina azkarragoak batzuk, landuagoak... Teknikoa oso exijentea izan da gugaz baina gero emoitzea be bistakoa da, soinu ona dauka diskoak. Irratietan soinu eskasa badaukazu ez dabe diskoak ipinten. Gaztea honezkeru ba-

dabil gure kanta bat ipinten, eta hori zeozergaitik be bada.

**Zelangoak dira hamabi kantak?**

Letra batzuk, maketearen antzera, gai orokor edo unibersalekoak dira; adibidez, Gerra Zibilean Bizkaia inguruan izan ziran bonbardaketen gainekoa, zahartzarua eta bakardadea... "Bidea dugu helmuga" filosofia hori be pare bat kantetan islatuten dogu. Gizartearen ikusten doguzan injustizia batzuk be salatuten doguz. Kanta bereziena "Laino guztien gainetik" da. Iñaki Otxoa de Olza mendizaleak liburu bat idatzi eban, zortzimilakoak igoten zer topetan eban kontetan, zergaitik aukeratu eban bizimodu hori. Orain dala lau urte hil egin zan Anapurman eta gaur da eguna zinemaldian dokumental bat estrenau dana omenaldi lez Iñaki Otxoa de Olza berari eta mendizaletasunari berari be bai. Orduan, gure kantan be bere filosofia hori laburtu dogu.

**Zuen somenaren emoitzea dira letrak?**

Danak ez, salbuespen bi dagoz. "Laino guztien gainetik" kantarena Unai Santosek egin eban baina Iñaki Otxoa de Olzaren liburuan oinarrituta. Bestea, "Ene lagun galduak" bersinua. Hau, Durangaldeko talde mitiko batek egin eban kanta bat da. 90. hamarkadako talde hori "Martxoak 31" zan. Izen horren zergaitia, Durango bonbardatu eban eguna horixe izan zalako da. Kontua da talde honen kantunik ezagunena "Ene lagun galduak" izan zala eta guretzat kantu espeziala dala, talde lez jotzen hasi ginan

lehenengo abestia haxe izan zalako.

**Kolaboraziorik?**

Bai, guretzako bereziak gainera. Batetik Zain taldeko Unai Uribe, MGN ibilitako Erika Ricoy Durangokoa, Iban Agirregoikoa MGko teklitea eta gure gitarristea izandakoa Joseba Algar. Ez dogu diseinua aitatu barik ibi gura. Erlantz Aristegik egin euskun eta asko eskertuten deusagu, sano ondo portau da gugaz.

**Jenteak bigarren disko bat eskatuten eban?**

Baietz pentsetan dogu. Azken baten, grabazioa dala eta denporaldi luze-txo baten egon gara "desagertuta". Baina bueltan gagoz barriro eta gugaz diskrutetako aukerea eukiko dabe hemetik aurrera. Diskoaren presentazioa zemendiaren 16an izango da Lemoako Gaztetxean.

**Bideoklipa zeozer barria izan da eta bete-beteen asmatu dozue gainera.**

Bai. Pentsetan dogu estrategia moduko bat izan zala. Maketea atera genduan eta Rodriguez lau hilerako Thailandiara joan zanez, jenteak zeozer eukiteko idea hori etorri jakun. Egia esan jentea harrituta gelditu zan. Bideografik Durangoko produktorea-gaz egin genduan lan eta kamarea lgorreko Eukeni Arriortua izan zan. Kalidadeko zera bat egin euskuen. Guk uste Arratia mailan ez dala inoz holako bideorik ikusi. Etorriko zan diskoaren aurrerapen moduko bat izan zan. Grabau zanetik diskoak atera arte bederatz hilabete pasau dira baina balio izan dau jentea hor mantenduteko.

**Oraingoan Jon Ipiñazar joan da... Zer pasauko da bien bitartean?**

Diskoak Ipiñazarek grabau dau, gitarrera, koruak eta dana. Baina diskoak aterateko puntuan egon eta mar-txau egin zan. Baten bat topetan ibili behar izan gara eta ordezkioa Jokin Uriarte da. Ahal zala hurreko baten bat, ezaguna eta ilusinoak egingo eutsana gura genduan. Hasieratik argi eta garbi baietz esan euskun eta oso inplikautu zein ilusionautu dago. Iria prest dago Lemoan joteko. Orduan, Ipiñazar etorri bitartean urte betez gugaz egongo da, ez da gixi.

**Gaztea irratan "Izotza bezain hotza" entzuten da.**

Entzuleen saria irabazteak lagundu egin deusku. Gure izena zabaltu egin da. Talde txiki bat garan aldetik, lujo bat da diskoak aurreko astean atera eta alde aurretik Gazteak bertako kanta bat ipintea. Euskal Herri osoan "Larregi: Arratia, Lemoa" entzungo dala jakitea pozgarria da danontzat.

**Lemoako aurkezpenaren ostean, non joko dozue?**

Abenduaren 7an Ahotsenean, arrastiko 16:30ean. Nahiz eta ordu erdiko kontzertua izan, inportantea izango da. Liburu Azokaren albo-alboan joko dogu eta grabau egingo da eta gero ETB3an aterako gara. Momentuz kontzertu bi horreek daukaguz lotuta. Apurka-apurka etorriko dira gehiago. Azken baten, diskoak zabaldutea gura dogu. Asko kostau jaku, behar handia egin dogu eta harro gagoz emoitzea-gaz. Hori dala eta, erakutsi egin gura dogu.



www.alkizabal.net  
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

**ALKIZABAL**

**Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua**

**BOLUNBURU POLIGONOA**  
 Amorebieta-Lemoa bidea  
 Tel. 94 631 44 06. Faxa. 94 631 20 26  
 48330 Lemoa (Bizkaia)



**KÄRCHER**  
Banatzaile ofiziala

















• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.  
• Garraio zerbitzua.